



LAN-PENTSIO-BIZITZA DUINA
Duintasuna aldarri eta helburu

Hego Euskal Herri osoan bezala, Lasarte-Orian ere izan du oihartzuna urtarrilaren 30eko greba orokorrak; ekintza ugari egin dituzte / 4

U30 GREBA OROKORRA

carta de los derechos sociales euskal hego eskubide sozialen

TXINTXARRI

Bizikidetza, sukaldean

Lasarte-Oriako Bizikidetza Taldea "norabide berri batean" ari da lanean, 2018. urtetik / 8-9

Udalbatzarrak onartu du zeremonia zibilen inguruko araudia; alegazioak egiteko epea ireki dute / 3

Aimar Sukunza gazteak emaitza bikainak erdietsi ditu krosean eta triatloian, asteburuan zehar / 12



ELECTRICIDAD ARREGUI

600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

Argiztatu zure etxea LED sabai-lanpara bozgorailudunekin!



Mugikorrek in musika jartzeko aukera bluetooth bidez

Kolorea eta tonua aldatu daiteke



Intentsitatea erregulatzeko aukera



Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

TXINTXARRI-k, greba

TXINTXARRI-ko langileok bat egin dugu Euskal Herriko Eskubideen Karta Sozialak urtarrilaren 30erako egin duen greba deialdiarekin. Aldizkaria egiten dugun langileok, orri zuri honen bidez bistarazi nahi dugu, besteak beste, lan munduko hainbat sektoretan gertatu bezala, komunikabideen egoera prekarioa. Kazetari bezala dugun konpromisoa lehenetsi dugu, eta aste honetako TXINTXARRI-n Lasarte-Orian grebak izan duen jarraipenaren berri emateko, asteazkenean, urtarrilaren 29an, egin dugu greba. Lasarte-Oriari buruz euskaraz eta gertutasunez informatzen jarraitu nahi dugu, baina ahalik eta baldintza duinenetan.

Harrera eta hileta zibilak, martxo amaierarako

Zeremonia zibilak egiteko baldintzak eta tokiak arautzen dituen erregelamendua onartu du Lasarte-Oriako udalbatzarrak. Onespina behin betikoa izan aurretik, ordea, GAO n argitaratuko du, herritarrek alegazioak aurkez ditzaten, hala nahi badute

Txintxarri

Urtarrileko udalbatzarrean onartu dute korporazioko kideek herrian zeremonia zibilak egiteko baldintzak eta tokiak arautzen dituen erregelamendua. Txosten horrek zehazten du ospakizun bakoitzaren definizioa, baldintzak, egunak eta espazioak zeintzuk izango diren, eta nork eskatu ahalko dituen.

Dokumentu horren onespina behin betikoa izan aurretik, GAO Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko du, herritarrek alegazioak aurkez ditzaten, hala nahi badute. Epe hori amaitzean, "definitiboki" onetsiko dute erregelamendua, udalak azaldu duenez. Bere aurreikuspenen arabera, orain arte egin zitezkeen ezkontza zibilez gain, harrerak eta hiletak ere ospatu ahalko dira, "martxo amaieratik aurrera".

Udalak jakinarazi du erabaki hori hartu duela, zeremonia zibilaren eskaintza handitzea alegia, etxe barruan eztabaida prozesu bat egin eta gero. "Egokitzat jo dugu jaiotzan zein heriotzan, bizitzaren funtsezko bi unetan, aukera ematea ospakizun zibilak egin ahal izateko".

Ezkontza zibila alkateak zuzenduko du, edo, bestela, ardurahori hartu duen zinegotzi batek. Harrera zein hiletan kasuan, pertsona hauek zuzenduhalko



Besteak beste, Mirentxun ospatu ahalko dituzte zeremonia zibilak herritarrek. TXINTXARRI

dute: alkateak, zinegotzi batek, edo, bestela, familiako kideek proposatutako pertsona batek. Bi hilabete lehenago aurkeztu beharko dira ospakizunak egiteko proposamenak, hiletan kasuan izan ezik; familiak nahi badu ekitaldi azkar edo intimo bat egin, bi egun lehenago aurkeztu beharko dute eskaera.

Tokiak eta ordutegiak

Udalak jakinarazi du lokal hauek jarriko dituela erabilgarri ospakizun zibil horiek egiteko: Mirentxu, udalbatzar aretoa, bista-aretoa eta hilerria. Harrera zibilaren kasuan, ordutegiak hauek izango dira: bista-aretoa eta Mirentxu 10:00etatik 14:00etara

zabalduko dituzte, astelehenetik ostiralera -Mirentxu larunbatetan ere erabili ahalko da-.

Ezkontza zibilak bista zein pleno aretoetan eta Mirentxun ospatu ahalko dituzte herritarrek. Hiru guneak 10:00etatik 14:00etara irekiko dituzte. Lehenengo, astegunetan soilik, eta, beste biak, larunbatetan ere bai. Hileta zibilak egitera bi areto bideratu dituzte. Mirentxu goizez eta arratsaldez egongo da zabalik astegunetan -10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara-, eta goizez soilik larunbatetan. Hilerria, aldiz, 09:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 19:30era astegunetan, eta, goizez soilik larunbatetan.



NEURE KABUZ

LIERNI REKONDO

Zauriak

Urteko lehen hilabeteak azken hatsa emango du gaur, eta oraindik ere ez gara ohitu datan hain biribila suertatzen den zenbakia idaztera, hogeitaz. Ikasle batzuentzat Erasmusetik bueltatzeko edo joateko hilabetea, joango direnak edo etorri direnak agurtzeko besteontzat.

Azken multzoan kokatzen dut nire burua, sei hilabeteren ondoren bueltatu baitzait lagun mina, oraingoan etxeratze agindurik gabe bueltatu da etxera. Atzean utzi du Txile, atzean gelditu da salbuespen-egoera (bi zentzutan), atzean utzi ditu iraultza eta errepresioa, miña, gorrotoa, oraindik zabaltzeke dauden zauriak eta jadanik gaiztotutakoak.

Urruti gelditzen zaizkigun gauza horiekin enpatizatzea zaila egiten zaigu, batzuetan gertatzen ari dena ez jakitea nahiago dugulako, gertatzen ari den hori kontatu nahi ez digutelako besteetan. Telebistan, ezbeharrak, injustiziak, gerrak edo gosez hiltzen diren haurrak agertzean pantailarantz zuzentzen dugu begirada unetxo batez, baina, afaltzen jarraitzen dugu ondoren.

Sei hilabete hauetan sarritan estutu zaigu arnasa Piñeraren gobernuak atxilotu, hildako eta zaurituen kopuruen berri izan dugunean horietakoren bat bera izango zelakoan. Gatazkak eztanda egin zuenetik informazioa biltzen ibili gara uneoro mementuan herrialdeak bizi zuen egoeraren berri jakiteko, handik eta hemendik, harri azpitan ere begiratu dugu batzuetan.

Maite ditugunei zuzenean eragiten dienean soilik uzkuertzen zaigu guztiz bihotza. Bera bueltatu da, Txilek borrokan jarraitzen du.

Lanuzteek aurrera jarraitzen dute Michelin Lasarten

Lan hitzarmenaren "on" baten aldeko borrokan jarraitzen dute Michelin Lasarteko langileek. Urtea hasi zenetik, ordubeteko lau lanuzte egin dituzte dagoeneko, azkena asteazken honetan. Urtarrilaren 8an hasi zituzten mobilizazioak, eta orduaz geroztik, langileen "erabateko atxikipenarekin" ari dira protestak egiten. "Oso

arrakastatsuak" izaten ari direla jakinarazi dute.

Ordubeteko lanuzteak izan dira orain artekoak, baina otsailaren 5erako eta 9rako deituta dituzten protestetan, zortzi orduko lanuzteak egingo dituzte. Michelingo zuzendaritzak negoziazio mahaian egindako eskaintza "bidegabe eta merezigabea" salatu nahi dute lanuzteen bidez.

Enpresarengandik jaso duten azken eskaintza "mehatxutzat" hartu dute.

9-12 urte bitartekoentzat
SUKALDARITZA
 Toki desberdinetako errezetak
 OSTEGUNETAN 18:00-19:30 Ttakunenean
 OTSAILAREN 13tik MARTXOAREN 12ra
 12€ TTAKUNEKO BAZKIDEAK 15€ EZ BAZKIDEAK
 ERAMAN BEHARREKOAK: Mantala
 Izena emateko:
 Ttakuneko bulegoan | aisia@ttakun.eus | Tel: 695785392

MAITE
 ESTETIKA ARETOA
 Hau da fotodepilazioa egiteko unerik egokiena
 Zaindu ezazu zure azala!
 Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45
 Manikura eta pedikura - Aurpegiko tratamenduak - Mota ezberdinetako depilazioak - Solariuma

Lasarte-Orian ere, greba

Lasarte-Orian, Hego Euskal Herri osoan bezala, eragina izan du urtarrilaren 30eko greba orokorrak. Erdigunean, batez ere: komertzio gehienek itxi dute. Tentsio uneak izan dira: ertzainek zenbait pertsona identifikatu dituzte, Hipodromo etorbidean eta Urbilen

Iñigo Gonzalez Sarobe

Euskal Herriko Eskubideen Karta Sozialak deitutako greba orokorrak izan du oihartzuna Lasarte-Orian ere. Herritar ugari bat egin dute lan, pensio eta bizitza duinaren aldeko aldarriekin. Lanuzteak egiteaz gain, herriko greba batzordeak antolatutako ekintzetan parte hartu dute, goizgoizetik. Ekitaldi jendetsuena ostegun arratsaldeko manifestazioa izan zen. Aldizkari hau inprentara bidaltzerakoan, kalean barrena manifestatzen ari ziren oraindik ehunka herritar.

Kotxe karabanak esnatu zuen herria. 07:30ean abiatu ziren ibilgailuak, Hipodromotik. Herriko lantegi eta poligonoetara joan ziren pikete informatiboak. Michelinen, esate baterako, beharginen herenak bat egin zuen greba orokorrarekin. Oria inguruan, itxita zeuden zenbait lantegi, eta irekita beste batzuk.

Greba orokorrak erdigunean eragin zuen, batez ere. Goizean goizetik, komertzio eta denda gehienak itxita zeuden. Pikete informatiboak bertatik pasa eta gero jaitsi zituzten pertsianak beste batzuek. Erdigunetik at dauden auzoetan jarraipena ez zen horrenbestekoa izan.

Tentsio uneak bizi izan zituzten grebalariek egunear zehar. Pikete informatiboen taldea Kutzarantz zihoala, kale-garbitzaile batekin topo egin, eta haren ibilgailuan grebari buruzko informazioa itsatsi zuten. Lekukoen arabera, "oldarkor" irten zen langilea; ertzainak etorri ziren orduan, eta grebari bat identifikatu, makina geratzea egotzita. Horri buruz eztabaidatu zuten hainbat minutuz. Polizia gehiago etorri ziren geroxeago, eta identifikazio gehiago egin: *Argia*-ko kazetari bat, eta *Diario Vasco*-ko argazkilaria bat. Bien bitartean, aldarru ugari Hipodromo etorbidean: *Adierazpen askatasuna!*, *Gaur, greba orokorra!* eta beste batzuk. *Performance* bat egin zuen herritar talde batek, bankariz mozorrotuta, haien jarduna kritikatu: Kutxa eta Santander paretik pasatzen ziren herritarrei *pertsionen zuku*a eskaintzen zieten: pentsionistak, gazteak, langileak... "zukutu" zituzten, laranja jak bailiran.

Herrian barrena ibili eta gero, eskualde mailako hitzorduarekin bat egin zuten grebalariek, Urbilen. Beste bi herritar identifikatu zituzten ertzainek orduan. Tentsio ugari merkatalgune horretan ere: polizia hiru lagun besterik ez

zientzen barrura sartzen, pikete informatibo lanak egitera, LAB sindikatuko kide Elias Minerrek zehaztu zuenez. Grebalariek erabaki zuten batera joatea barrurantz; lehen hiruk pasa eta gero, ertzainek indarrez saiatu ziren besteei pasatzen ez uzten, bultzaka eta borrak erabiliz, baina batzuek lortu zuten barrura sartzea, lokarria gaindituz.

Hiriburuetan, 145.000 lagun

LAB sindikatuaren arabera -lanuztearen deitzaileetako bat, ELA, STEILAS, ESK, HIRU, EHNE, ETXALDE sindikatu eta hainbat eragile sozial eta mugimendurekin batera-, eguerdiko manifestazioetan 145.000 lagun atera ziren kaleetara, grebaren aldarriekin bat eginez. Horietatik 35.000 elkartu ziren Donostian, lasarteoriatar ugari tartean zirela. Beste manifestazioak Bilbon, Gasteizen eta Iruñean izan ziren. Grebak, oro har, "jarraipen handia" izan duela esan dute, hainbat sektoretan. Hezkuntzan, %65ekoa.

Usko Jaurlaritzak zehaztu du administrazio publikoko langileen %16,9k egin duela greba, 2013koan baino hamar puntu gutxiago -urte horretako greba orokorrean, %26k egin zuten lanuztea-



Kotxe karabana 07:30ean irten zen Hipodromotik, herriko lantegietara bidean. TXINTXARRI



Ertzainek hiru lagun identifikatu zituzten Hipodromo etorbidean, atzo goizean. TXINTXARRI



Michelin alboko errepidea, itxita, atzo goizean. TXEMA VALLES

Lanbideko langile bat herrian erasotua izan dela salatu dute

Lanbideren arabera, behargina lurrera bota dute sei gaztek, Lasarte-Oriako bulegoetako batean; bajaran jarraitzen du

Txintxarri

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak agerraldia egin du asteon, urtarrilaren 30ko grebarekin zerikusia duten pintaketa batzuk egin izana salatuz, eta Lasarte-Oriako

bulego batean gertatutako "eraso" baten berri emateko. Lanbide azaldu duenaren arabera, pasa den asteko ostiralean sei gazte joan ziren bulego horretara, greba orokorrari buruzko afixak itsastera eta pintaketak egitera.

Segurtasun langileak kargu hartu zien; gazteen eta bere arteko liskarra hasi zen orduan, eta lurrera bota zuten langilea. Euskal Enplegu Zerbitzuak dio bajaran jarraitzen duela beharginak, lesioak dituelako.

Gipuzkoako PSE-EEk gaitzetsi egin du gertakaria. Idazkari Nagusi Eneko Anduezak gazte mugimenduei galdegin die gertatutakoa gaitzestea. Horri lotuta, adierazpen bat helarazi dio prentsari Lasarte-Oriako Pentsionisten Koordinakundeak.

"*Diario Vasco* egunkariak argitaratutakoa oinarritzat hartuz, erasotua izan den langileari elkartasuna adierazi nahi diogu", dio. Beharginari opa dio "azkar" eta "gutziz" osatzea.

"Koordinakundea kudeatzen duen Lan Batzordeak argi adierazi du ez duela urtarrilaren 30eko greba orokorra babesten, hainbat arrazoiengatik, eta Lanbideko langileari gertatutakoak berretsi egiten du gure jarrera; salatu egiten dugu gertatutakoa", nabarmendu du.



Lanbideren bulego baten sarrera. TXINTXARRI

Sendabelarrez eta aromaterapiaz ikasten ari dira, Ttakunenean

Martxora bitartean ukenduak, tinturak, ilerako xanpua eta beste zenbait produktu egiten arituko dira

Txintxarri

Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako sendabelar eta aromaterapia ikastaroan parte hartzen ari diren herritarrek sendabelar ezberdinak erabiliaz produktuak egiten ikasten ari

dira. Urtarrilaren 17an hasi ziren saioak Ttakunenean eta martxoaren 6ra arte, Saioa Larruskainen laguntzaz sendabelarren munduan murgilduko dira teoria eta praktika tartekatuz.

Bi saiotan, esate baterako, Aingeru lora ukendua eta tinturak egiteko lehen pausoak eman dituzte. Lehenengo egunean, Aingeru lora almendra oliotan jarri zuten. 40 egunez itxaron behar dute orain, potoari bueltak emanez. Hilabete eta 10 egun horiek pasatzean, ukendua prestatuko dute. Bigarrenean, berriz, belar ezberdinak, hala nola, azeri buztana, osina, erromeroa edo fucus alga alkoholean beratzen jarri dituzte, tinturak osatzeko.



Sendabelarrak alkoholean beratuz, tinturak prestatzen aritu ziren ostiralean. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Dantza eginez ongi pasatzera

Urteko lehen plaza dantza saioan, urtarrilaren 26an, lagun ugari elkartu zen Okendo plazan. Muxikoen doinuak gidatuta, zaletu nahiz hasiberri, denei irekia zegoen jarduera. Pausoak ez zekizkienak, entzundako jarraibideei kasu egin edo badakitenei begira urratsak errepikatzea besterik ez zuen. Izan ere, ondo pasatzea eta dantza tradizionalakiko zaletasuna piztea baita helburua. Eta beste behin, lortu dute.



TXINTXARRI

Rafael Arrutik, 3.000 euroko saria

Errege Eguneko loteriak poz ederra eman dio Ogi Berri okindegiko Rafael Arruti Aramburu bezeroari. Eguneroko bezeroak dira Arruti eta bere familia eta Usurbildik Lasarte-Oriarako bidea egiten dute. 3.000 euroko saria eskuartean, zertan erabiliko duen oso argi du. "Dirua oso ongi datorrit. Aurten astebeteko oporrak egin beharrean, bi asteoak egingo ditugu. Kanariar uharteetara edo... ikusiko da".

m
Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

"Enpresak unibertsitatera etortzen dira lanpostuak eskaintzera"

Ander Baile Apaolaza 23 urteko lasarte-orientatuta Industria Ingeniaritza unibertsitate masterreko ikaslea da, Industria Elektronika espezialitatean. Lehenengo maila ikasten ari da, DUAL ibilbidean.



Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Ikasketak Añorgan hasi nituen, Amasorrain ikastolan. Lehen Hezkuntza bukatu ondoren, DBH eta Batxilergoa Larramendi ikastetxean egin nituen. Behin batxilergoa bukatu ondoren Energia Ingeniaritzako gradua egitea erabaki nuen. Kirola egitea gustuko dut. Sei urtez futboleko jokatu nuen Ostadarren eta orain triatloiak egiten ditut.

Zergatik aukeratu zenuen Energiaren Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Oso argi izan dut beti ingeniaritza bat egitea eta Energiaren Ingeniaritza gradu berri eta etorkizuneko izateak erakarri ninduen. Mondragon Unibertsitatea aukeratzeko arrazoi nagusia hezkuntza eredua izan zen. Klaseetan ikasitako gaiak, talde lanetan egiten diren proiektu ezberdinen bitartez hobeto barneratzen dira. Gainera, ikasketak eta lana txandakatzea egiteko aukera

ematen du. Azkenik, gradu osoa euskaraz egiteak asko erakarri ninduen.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Bidea ez da erreza izan, lan gogorra egin dut baina egin dudana ahalegin guztiak merezi izan du eta horrek edozein erroka gainditzeko indarra eman dit.

Nola definituko zenuke Mondragon Unibertsitatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Unibertsitateak duen alde ona, irakasleen gertutasuna da. Bestalde, seihileko bakoitzaren bukaeran, ikasitakoa barneratzeko proiektu bat egiten da taldeka. Beste alde positibo bat, gradu amaierako proiektua enpresa batean egiteko aukera da. Gainera, graduan zehar ikasketak eta lana partekatzen aukera ematen du.

Unibertsitateatik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana inguruko enprekin dagoen harremana da. Inguruko eta kanpoko

enpresak unibertsitatera etortzen dira lanpostuak eskaintzera.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, DUAL eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun?

Laugarren mailan gradu bukaerarako proiektua Aiguasol enpresan egin nuen. Behin gradu bukaerako lana bukatuta, enpresan jarraitzea eskaini zidaten eta orain, masterra egiten dudana bitartean, Aiguasolen jarraitzen dut lanean. Aiguasol, Oartzunen dagoen energiaren aholku-enpresa da.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Ikasketak egiten ari naizen bitartean lan egiteak lan munduan sartzea ahalbidetu dit. Klasean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan dut.


Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Epe laburrean, masterra bukatu ondoren Aiguasolen jarraitzea gustatuko litzaidake. Epe luzean, berriz, enpresa berri bat sortzea gustatuko litzaidake.

PLAZAN BAZAN

itzala

"Ibeltzeko hotzak leizera daramatza hartzak" dio esaera zaharrak, eta hartz honek ere bide hori bera hartu duela dirudi. Aurki ezazu bere itzal ona, alboko zortzi hauen artean.



Hara!



Bai bitxia gure hizkuntza. Hiru elementu hauek izen bera dute, aizu! **Zer dira?** Ipinu hemen. →

Lauki bakoitzeko hizki bana idatzi behar duzu. Hemen pista batzuk, lagungarri:


- Azkena, bat baino gehiago direla adierazteko da.
- Lehen hizkia ez dugu normalki ahoskatzen.
- Bigarrena eta seigarrena bokalak dira eta berdinak dira.
- Laugarrena bokala da, baina ez da bigarren eta seigarren laukikoa bezalakoa, ezta O, edo E ere.
- Bosgarrena sudurkaria da. Ez da Ñ, baina ia-ia.
- Hirugarrena, "gu" hitzan aurkituko duzu.

ETA
NIK NOLA
JAKINGO DUT
HORI!!



NON da Faltsua?

TTIPI-TTAPAKo irakurle batek oso ondo esan zigun behin: Elur malutak izotz-prismez osatuta daude, eta ezberdinak diren arren, ezaugarri bat eta bera dute, hexagonoak dira, sei adar dituzte beti. Aurki itzazu izotz-prisma faltsua (zazpi adar dituen) eta izotz-prisma bikoiztua.



Marraztu Urtarrila edo negua gogorarazten dizun zerbait.

Engainariak

Txatal edo puska haueatik erdiak iruditik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Labirintoa

sekuentzia



Lagundu azerikumeari azeritegira heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tartetak dira.

Labirintoa (Maze) containing a grid of letters and icons. The path starts at the fox on the left and ends at the fox on the right. The path letters are: U, R, O, S, E, R, H, A, J, E, N, B, A, S, Z, I, T, U, R, L, U, S, U.

Idatzi hemen esaldia. _____



Sukaldean ari dira, Lasarte-Oriako zauriak isteko ahaleginetan

LASARTE-ORIAKO BIZIKIDETZA TALDEA

2014. urtean sortu zen taldea, baina 2018az geroztik ari dira norabide berri batean lanean. Herriko bizilagunen elkarbizitza sendoago bat helburu, biktima lasarteoriatarrekin elkarrizketak abiatu dituzte

Maddi Zaldua

Nori ez zaio zaila egiten barruan dituen korapiloak askatzea? Are zailagoa gerta liteke gainera, korapilo horiek mina ematen badute. Horiek barrutik kanpora ateratzeak, horiez hitz egiteak, ordea, lagundu dezake samina arintzen, zauriak sendatzen. Hitz egin daiteke senide batekin, lagun batekin, gertuko edonorekin, baina, Lasarte-Orian, baita herrikide edo bizilagunekin ere. Horretaz badaki zerbait herriko Bizikidetzaren Taldeak. Hizketarako, Lasarte-Oriako zauriak sendatzeko espazio berri batean ari baitira lanean 2018az geroztik. "Indarkeriaren biktima" lasarteoriatar guztiak dituzte jomuga prozesu horretan, eta lehen lanketaren fruituak jaso dituzte dagoeneko.

2014. urtean sortu zen taldea, eta orduz geroztik jardun ezberdinetan aritu dira. 2016. urtera arte, esaterako, taldearen "barne hausnarketa eta eztabaida" izan dira lan ildo nagusiak. Hilabete behin elkartu, eta biktimez, egiaz, memoriaz, bizitzeko eskubideaz eta Giza Eskubideez aritu dira mahaiaren bueltan. Ibilbide horretan, bakoitzak bere iritziak eta hausnarketak plazaratzeko espazioa sortu dute; "konfiantzazkoa" dagoeneko, nahiz eta aitortu duten atmosfera eroso lortzea ez dela lan erraza izan.

2016. urtean, aldiz, ordura arteko ibilbidearen hausnarketa bat egiteko beharra antzeman

zuen taldeak. Lan prozesua "moteldu" egin zen, eta norabidea zehazteko arnas apur bat hartzea erabaki zuten. Horrela, 2017an egindako hausnarketa egunean detektatu zuten taldearen beharra: Lasarte-Oriari, herriari irekitzeko gogoia zuten. Horrela, bidegurutzean bide berriari ekin, eta lanean hasi ziren.

Sare sozialetan eman zuten lehen pausoa. Emandako urrats guztiak argitaratu dituzte bertan, eta gaurdaino egindakoaz informazioa jasotzeko aukera du edozein lasarteoriatarrek bertan. Horrez gain, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren ekimenak herritarrei zabaltzen ere ari dira. Modu horretan eman dituzte Lasarte-Oriarentzat lehen pausoa, baina argi dute gauza bat: taldearen jardunak ezin duela biktimen aitortza hutsean geratu. "Gure helburua ez da biktimak aitortzera mugatzen; bere bizilagunen artean integratzen lagundu nahi diegu".

Eginbehar horretan ari dira orain: "Indarkeriaren biktima" lasarteoriatarrekin elkartu, eta elkarrizketak egiten, hain zuzen -Euskal Herriko talde

ELKARBIZITZA HOBE BATEN ALDE, NORABIDE BERRI BATEAN ARI DIRA LANEAN 2018. URTETIK

bakarra da lanketa horretan ari dena-. "Ideia lantzen hasi ginenetik bi urteko prozesu luzea izan da, eta eztabaida askoren ostean orain egikaritu dugu lehen fasea". Ez dira biktima lasarteoriatar guztiak batera lanean ari, baina taldearen asmoa bada biktima guztiak prozesu bera jarraitzea: "Biktimarik diskriminatu gabe, guztiak lanketa bera egingo dugu".

Akordio Etiko propioa

Prozesu berriari hasiera emateko taldearen Akordio Etikoa adostea izan da lehen urratsa; abiapuntua. "Bizitzeko eskubidea eta bestelako Giza Eskubideak erdigunean jarriaz, bizikidetzaren oinarriak planteatu ditugu bertan". Hori eskuarte hartuta eta lanari ekiteko prest zirela, ordea, lehenengo horma aurkitu zuten parez pare. "Galdera eta duda ugari sortu zitzaizkigun. Nondik hasiko gara? Zein ate joko dugu lehenik? Ez genekien nola hasi, eta horretan oso lagungarria izan da Giza Eskubideen aldeko Argituz elkarteak egindako Memoria partekatuta baterantz txostena". Lasarte-Orian 1956. urtetik 2016. urte bitartean gertatutako Giza Eskubideen urraketak eta indarkeria ekintzak biltzen ditu informea. "Gure Akordio Etikoarekin batera, hori izan da lanerako zutabe nagusia".

Txosteneko sailkapenari jarraituz hasi dira lanean, eta "indarkeriagatik" bizitza galdu

duten lasarteoriatarrekin abiatu dute prozesua. Begoña Urrozen, Jose Javier Urritegiren, Alfonso Morcilloren, Froilan Elesperen, Antonio Huegunen, Alejandro Saenzen eta Mikel Kastresanaren kasuak landu dituzte lehen fase honetan. Horiekin batera, bazuten zortzigarren biktima baten kasua lantzeko asmoa ere, baina taldeak jakinarazi du "ezinezkoa" izan zaiela haren senideekin harremanetan jartzea.

Lehen oztupoa gainditu arren, hortik aurrerako lana ere ez da makala izan. Aipatu biktima horiekin harremanetan jartzeko bideak ere buruhauste bat baino gehiago eman dio taldeari. "Deialdi publikorik egin nahi ez genuenez, zuzeneko harremanari eman diogu garrantzia; harreman pertsonaletatik tiraka abiatu dugu prozesua".

Elkarrizketetarako espazioa

Elkarrizketa saioetan parte hartzera gonbidatzeko taldeak idatzitako eskutitz bana igorri diete biktimei, eta erantzun ona izan du. Lehen kontaktuak eginda, elkarrizketetarako espazio egokiaren bila jarri da taldea; garrantzia "handia" eman

ARGITUZEN TXOSTENA ETA TALDEAREN AKORDIO ETIKOA DIRA LANKETAREN BI ZUTABE NAGUSIAK



Ezker-eskuin: Juan Mari Alkorta, Mercedes Martinez,

diote horri: "Biktimak interesen arabera erabiltzen dira politikan, eta horrek, mesfidantza sor dezake beraiengan. Horregatik gure elkarrizketetarako konfiantzazko espazioak sortzea ezinbestekoa izan da". "Kostata", baina eremu "goxo eta xumea" bilatu dute azkenean: etxeko sukalde. "Betidanik izan da hizketarako lekua, bertan egosten da guztia". Hortaz, taldeko kide baten etxeko "sukaldeko epeltasunean" egin dituzte biktimekin hitzorduak. Kasu bakoitzean jasotakoa "ezberdina" izan da, baina "emankorrek" izan dira guztiak. "Bakoitza bere bizipen eta sentimenduetatik hurbildu da gugana, baina jaso dugunaren balorazio positiboa egiten dugu; sortu dira lanerako sinergia berriak ere". Taldearekiko izan duten jarrera "oso ona" izan dela ere azpimarratu dute: "Egoki ikusi dute herritarrak herritarrengana hurbiltzeko egin dugun ahalegina, eta asko eskertu digute".

Lasarte-Oriaren etorkizuneko elkarbizitza hobeko baterako "ezinbestekoa" ikusten du abiatu berri duten lanketa. "Guk, gure herrian gertatu



Kike Intxausti, Pello Sasiain, Mari Karmen Ormazabal, Maialen Lizarralde, Rosa Bell Ausin eta Jesus Artetxe bizikidetza taldeko kideak. TXINTXARRI

denaz baliatu nahi dugu bizikidetza sendoago bat lortzeko, eta horretarako hurbiltasunez eta bizilaguntasunetik jarraituko du gure apustuak. Gure giza kateari zor diogu geroa hobeago izatea, baina horretarako, ezin daiteke pasartearen orrialdea irakurri gabe utzi, benetako iraganaren irakurketa kritikotik etorriko baita elkarbizitza hobea".

Erabateko bizikidetza lortuko den edo ez baieztatzen ez dira ausartu. "Hori aztien kontua

izan liteke, baina gure belaunaldian ia ezinezkoa ikusten dugu, horregatik, gazteengan eragitea ezinbestekoa da, horiek, agian, lortuko baitute erabateko elkarbizitza".

Gazteek gaiarekiko duten ezjakintasunaren berri ere

"INSTITUTUETAKO IKASLEEK EZER GUTXI DAKITE GAI AZ, ETA KEZKA SORTZEN DIGU HORREK"

badute. "Instituetako eta unibertsitateetako ikasleek ezer gutxi dakite gertatutakoaz, eta kezka sortzen digu horrek". Hor ere eragin nahi du Lasarte-Oriako Bizikidetza taldeak, eta horretarako "ezinbesteko tresnak" ikusten dituzte artea,

"JENDEAK BADU HITZ EGITEKO BEHARRA, BAINA HORRETARAKO ESPAZIOAK SORTU BEHAR DIRA"

zinema eta antzerkia, esaterako. Baina kontziente dira gisa horretako ekitaldiek ez dituztela gazteak erakartzen. Horregatik, ez dute baztertu herriko ikastetxe eta institutuekin elkarlanean aritzea: "Ikastetxeetan lekua egin nahi diogu gure lanketari".

Jendeak "hitz egiteko beharra" du, baina horretarako espazioak sortu behar dira, horrek ahalbidetuko baitu elkarbizitza hobe bat. "Gure taldearena bezalako espazioak oso lagungarriak dira, errespetuz,

norberaren ideia eta izaera politikoak alde batera utzita, elkarrekin lan egiteko gai garela frogatu dugu".

Lehen fasea amaituta, torturak salatu dituzten biktimekin hasiko dira lanean. Argituzten txostenaz baliatu dira bide horri ekiteko ere. 51 salaketen berri ematen du informeak, eta Eusko Jaurlaritzaren bidez, hasi dira lehenengo harremanak egiten.

Bide eta prozesu berdina jarraitu asmo dute; herritarren arteko elkarbizitza. Barrutik kanpora.

Bizikidetza taldearen Akordio Etikoa

"Egia, justizia, aitortza eta erreparazioa biktima guztientzat, diskriminaziorik gabe"

- 1.- Lasarte-Oriako herria bertako pertsona guztiok osatzen dugu.
- 2.- Lasarte-Oriako mota ezberdinetako indarkeria gertaerak egon dira pertsonen aurka. Gertaera hauek herriko bizilagunen bakea eta bizikidetza kaltetu dute.
- 3.- *Memoria partekatu baterantz* txostenak (2017ko urriaren 5ean aurkeztua) Lasarte-Oriako gertatutako indarkeriazko ekintzak eta testigantza eta hausnarketa ugari azaltzen ditu, iraganaren berrikuspen kritikoa egitera bultzatzen gaitu.
- 4.- Akatsetatik ikasi eta bizikidetzarako esparru egonkor bat bermatuko digun Akordio Etiko berri bat finkatu behar dugu.
 - Bizitzeko Eskubidea eta Giza Eskubideak bere osotasunean babestu beharreko funtsezko baloreak dira, eta bide berri honen erreferentzia izan behar dira, denak baitira beharrezkoak.
 - Ideia eta posizio ideologiko, erlijioso eta politiko guztiak dira eztabaidagarriak eta denek merezi dute aintzakotzat hartuak izatea, betiere pertsona guztien osotasun fisiko, psikiko eta moralaren eskubidea errespetatzen dituzten heinean.
- 5.- Lasarte-Oriako biztanle bezala, adierazpen hau askatasunez eta borondatez babestera eta Akordio Etiko honekin konpromisoa hartzen gonbidatzen zaitugu. Lasarte-Oriako Bizikidetza Taldea. 2018ko urtarrila.

OTEgi

TOLARE SAGARDOTEGIA

Egin TXOTX herrian!

Larunbatean irekitzen dugu!
(otsailaren 1ean)

txahal-salheskia ere badugu!

Igande gauak eta astelehenak itxita
Asteazkenean bazkari eta afariak erreserbarekin. Deitu!

ERRESERBAK: 943 36 50 29 / 654 80 61 63 • Solla-Enea Baserria, Zabaleta auzoa 20160 LASARTE-ORIA

TXINTXARRI-k, greba

TXINTXARRI-ko langileok bat egin dugu Euskal Herriko Eskubideen Karta Sozialak urtarrilaren 30erako egin duen greba deialdiarekin. Aldizkaria egiten dugun langileok, orri zuri honen bidez bistarazi nahi dugu, besteak beste, lan munduko hainbat sektoretan gertatu bezala, komunikabideen egoera prekarioa. Kazetari bezala dugun konpromisoa lehenetsi dugu, eta aste honetako TXINTXARRI-n Lasarte-Orian grebak izan duen jarraipenaren berri emateko, asteazkenean, urtarrilaren 29an, egin dugu greba. Lasarte-Oriari buruz euskaraz eta gertutasunez informatzen jarraitu nahi dugu, baina ahalik eta baldintza duinenetan.

Garaipen garrantzitsuak junior eta seniorrentzat

Maialen Chourraut kiroldegian jokatu dute junior errendimendu eta senior probintzial taldeek, eta irabazi: sailkapenaren goiko postuetan jarraitzen dute. Bestalde, kadete errendimendu taldea Euskal Ligako A2 multzoan ariko da, beste bost talderekin batera

Txintxarri

Bi partida, bi garaipen. Saskibaloia izan zen protagonista larunbat arratsaldean, Maialen Chourraut kiroldegian. Junior errendimendu eta senior probintzial 1. mailako taldeek jokatu zuten. Atletico San Sebastian eta Añorga Saskibaloia izan zituzten aurrez aurre, hurrenez hurren.

Lehen norgehiagokan, junior errendimendua mailako neskak aritu ziren. Urdin-beltzek Atletico San Sebastian talde donostiarra izan zuten arerio. Berdindutako partida izan zen; joko azkarra eta aukera ugari sortu zituzten bi taldeek. Jokoaren erdian, bakoitzaren puntu kopurua 33-30 zen, etxekoan alde.

Atsedendialdiaren ondoren, erritmoa apur bat jaitsi zen, baina saskiratzeak pilatzen jarraitu zuten bi boskoteek. Nahiz eta Donostiako taldeko entrenatzaileak defentsa eta kontraerasoa egiteko errepikatu bere jokalariei, ezin izan zioten Ostadarri aurre hartu eta 64-52koa izan zen azken emaitza. Zazpi partida irabazi eta beste hainbeste galduta, sailkapeneko bosgarren postuan dira juniorrak, 21 puntu zakuratuta.

Arratsaldeko bigarren partidari, senior probintzial 1. mailako nesken txanda izan zen. Juniorren



Ostadarreko seniorrek 67-40 irabazi diote Añorga Saskibaloia. TXINTXARRI

neurketan bezala, Ostadar aurretik joan zen markagailuan norgehiagoka osoan eta jokoan ere nagusitu ziren. Atsedendialdi 34-22 heldu ziren eta joera bera mantendu zuten azken bi laurdenetan, alde gero eta gehiago zabaldua. Hala, amaierako emaitza 67-40 izan zen. Jardunaldia sailkapeneko laugarren postuan amaitu du Ostadarrek, hirugarrenarekin berdinduta. Hemezortzi puntu ditu, lehen postuan dauden Atletico San Sebastian eta Zast Neskak taldeek baino puntu bat

gutxiago. Hamar partida jokatu dituzte orain arte.

Kadeteak, Lauko Finalean

Ostadarreko kadete errendimendu taldea Euskal Ligako A2 multzoan lehiatuko da azkenean. Sei taldek jokatu dute: Easo, Movilteck ISB, Loiola Indautxu, San Viator, Goierri eta Ostadarrek. Lauko Finala jokatu du asteburuan, eta, finalera sailkatu ezin izanenez, multzo horretan aritzea dagokio. San Viatorrekin neurtu zituzten indarrak urdin-beltzek, eta 46-56 galdu.



TXINTXARRI

Sei Nazioak B Txapelketan epaile

Jon Ibisate Alday herritarrak marrazain lanak egingo ditu Sei Nazioak B Txapelketan, Iñigo Atorrasagastik zuzenduko duen hirukoan. Errusia eta Portugalen arteko neurketa kudeatuko dute, otsailaren 22an, larunbatez, Kaliningradon (Errusia). 15:00etan hasiko da norgehiagoka hori.

Georgia, Errumania, Errusia, Portugal, Belgika eta Espainia ariko dira nor baino nor gehiago Sei Nazioak B Txapelketan. Asteburu honetan hasiko dira lehiatzen sei parte-hartzaileak: Georgiak eta Errumaniak jokatu dute lehen norgehiagoka, Tbilisin (Georgia). Martxo erdialdera arte iraungo du txapelketak.



OSTADAR IPAR MARTXA

Urtarrilekoa, Jaizkibelen

Ostadar Ipar Martxako kideek urtarrileko irteera egin zuten iragan asteburuan. Larunbatean Jaizkibel aldera joan ziren, Mitxitola mendira. "Goiz ederra pasa genuen", adierazi du Rosa Ormazabalek, taldeko koordinatzaileetako batek. Otsaileko egutegia kargatuta dator: hilaren 16an, igandez, Aspanogik antolatutako martxara joango dira hainbat kide. Irteera, aldiz, 29an egingo dute, larunbarekin. Ametzagaina eta Cristinaenea parkeetara joango dira, Donostiara.

TXANTXO JANTZIEN TAILERRA

Badatoz Euskal Inauteriak! Txantxoz janztera animatu nahi zaituztegu. Jantzia ez duzuenontzat, heldu zein umeei zuzendutako **TAILERRA** antolatu dugu.

• **Noiz:** Otsailaren 8an, 11:00etatik 12:30era edo otsailaren 12an, 17:30etik 19:00etara.

• **Non:** Anbulategiko eraikineko 2.pisua.

Eraman beharrekoa:
Lastozko txanoa eta etxean dituzuen oihal zaharrak.

Informazioa eta izen-ematea (otsailak 6 baino lehen):

Ttakuneko bulegoan | kultura@ttakun.eus | 943 37 14 48 zenbakian | whatsapp: 695785389



Sukunza, kros eta triatloi trofeoak metatzen

Gipuzkoako kros txapelketa Laboral Kutxa sarian eta Euskadiko triatloi Zirkuituko bigarren postuak eskuratu ditu Lasarte-Oriako gazteak. Raul Gomez Margallo herritarra ere saritu dute 2019. urteko Kirolprobak Ligan; lehen sailkatua izan da

Txintxarri

Aimar Sukunza gaztea pozarren dago. Gipuzkoako 18 urtez azpiko kroseko txapelkunordearen trofeoa jaso zuen igandean, urtarrilaren 26an, 59. Bolumburu krosean. Egun berean, 2019. urteko Euskal triatloi zirkuituko bigarren saria ere eman zioten. Igandekoa egun biribila izan zen Lasarte-Oriako gaztearentzat.

59. Bolumburu krosa jokatu zen Eibarren. 18 urtez azpikoan lasterketan, Aimar Sukunza lasarteoriatarrek hirugarren postua lortu zuen, 22:11ko denborarekin. Ez zen lasarteoriatar bakarria izan lasterketan, Unai G. Somovilla ere lehiatu baitzen, 23:35eko denbora eginez. Absolutu mailan Koldo Lucero herritarra aritu zen korrika.

Lasterketaren ostean, azarotik hona martxan egon den Gipuzkoako kros txapelketa Laboral Kutxa Sariako trofeo banaketa egin zen.

Sukunzak txapelkunordetza eskuratu du sariko hiru krosetan lortutako puntuei esker: zortzi guztira. Arestian aipatu bezala, Bolumburu kroseko hirugarren izan zen, postu berdina lortu zuen azaroan lehiatutako Irungo krosean eta lehen gipuzkoarra izan zen abenduan lehenean



Sukunza, sariak eskuetan. K. GOMEZ

jokatu zen Ordiziako Txindoki krosean.

Eibarren bertan, Euskadiko Triatloi federazioak antolatutako 2019ko Euskal Zirkuituko sari banaketan ere izan zen Sukunza, igande arratsaldean.

Triatloi eta duatloi denboraldiko sariak banatu ziren horretan eta triatloiko kadete mailako bigarren saria eraman zuen etxera Lasarte-Oriako gazteak.

Sari banaketekin jarraituz, 2019. urteko Kirolprobak ligetako

sariak banatu ziren, urtarrilaren 17an, Donostiako Aquariumean. Raul Gomez Margallo herritarra izan zen ekitaldi horretako protagonistetako bat.

Kirolprobak Liga

Gomez Margallok korrika lasterketako X. Ligako garaikurra lortu zuen, berriro ere. 2018 urteko Ligako arantzatxoa kendu du ahal izan du herritarrek, eta nagusitasunez, 40 puntuko tartea izan du. Etxera eraman du X. Ligako lehen saria.

Herritarrek lau edizioetan jarraian, 2014 urtetik 2017ra, Ligako garaile izan zen. 2018 urtekoan, aldiz, hirugarren sailkatu zen. Orduan Victor Madejonek, aurtengo bigarren sailkatuak, irabazi zuen Liga.

Podiumeko azken mailan beste lasarteoriatar bat ere izan da, Gorka Gil. Gilek ezin izan du 2018ko bigarren postua mantendu. Madejonengandik sei puntura geratu da.

Sariaz gain, kilometroak ere gehitu dizkio Gomez Margallok bere korrikalari ibilbideari. Igandean, urtarrilaren 26an, XL Idiazabalgo herri krosean parte hartu zuen. 10,245 kilometroko lasterketa zortzigarren postuan amaitu zuen herritarrek, 33:49ko denbora eginez.



Insausti taberna eta Garoa tabernaren neurketaren irudia. TXINTXARRI

Bederatzi talde lehian, txapelkun bakarria ekainean

Herriko areto-futbol txapelketa martxan da. Insausti taberna eta Patricio Cocktail Bar daude lehen postuetan

Txintxarri

Herriko areto-futbol txapelketako bosgarren jardunaldia jokatu zuten Michelingo kirol gunean larunbata arratsaldean.

Jardunaldiko lehen partidaren Garoa Tabernak 2-4 galdu zuen Insausti tabernaren aurka. Buenetxea tabernak ere porrota jasan zuen bigarren partidaren, Asador Irigoyen 1-8 gailendu zuen eta. Hirugarren partidaren, Bar Goiko taldeak Viña del Mar garaitu zuen 7-4. Azkenean, Avenida taberna Patricio Cocktail Bar taldeen arteko norgehiagoka izan zen. Partida berdinduan 2-3 irabazi zuen Patriciok.

Insausti eta Patricio, lidertzan

Puntu gehien biltzen dituzten lau taldeak sailkatuko dira txapelkunaren faserako. Asko falta da oraindik jakiteko nortzuk izango diren, baina bost jardunaldi jokatu ostean, hauek

dira aurreneko lau sailkatuak: Insausti taberna, Patricio Cocktail Bar, Asador Irigoyen eta Bar Goiko.

Hamarna puntu dituzte Insaustik eta Patriciok, hiruna partida irabazi eta elkarren artean jokaturakoa berdindua –lehen itzuliko atsedendia hartu dute bi taldeek honezkerok—. Asador Irigoyenek bederatzi puntu zakuratu ditu; Bar Goikok, zortzi. Avenida da orain arte punturik pilatzea lortu ez duen talde bakarria, nahiz eta gertu ibili.

Seigarren jardunaldia jokatu dute asteburu honetan. Hauek izango dira neurketak:

Asador Irigoyen-Bar Goiko (larunbata, 09:15)
Insausti-Buenetxea (lar., 10:15)
Patricio-Garoa (lar., 11:15)
Trumoi-Avenida (lar., 12:15)
Viña del Mar taldeak hartuko du atsedena.

Herriko txirrindulariak Usurbilen, hotzez akabatzen

Irisasi BTT probako beste edizio bat jokatu da Andatza mendiko magaletan; hainbat herritar lehiatu dira

Txintxarri

Nagiak alde batera utzi eta urtarrilaren 26an, igande goizean, mendi txirrindularitza gogoko zuten 600 bat kirolarik Usurbilera egin zuten bidea. Irisasi BTT Hotzak Akabatzen ekimenaren

bederatzigarren edizioa ospatuko zen eta eguraldia lagun, Andatza mendian barrena ibiltzeko aukera aparta izan zuten guztiek.

Inoiz baino parte hartzerik handiena izan da aurtengoa, antolatzaileen hitzetan, eta

Lasarte-Oriak ere izan zuen bere ordezkaritza: Saiatz taldeko kideak eta hainbat herritar.

Mikel Laboa plazatik atera eta Andatza mendirako bidea hartu zuten guztiek. Bi ibilbide egin egin ahal izan zituzten mendi txirrindularitzako zaleek: motza, 21,15 km; eta luzea, 33,68 km.

Lokatz, putzu eta sastraka artean, erlojuari jaramonik egin gabe ibili ziren lagunartean, Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proba lehiakortasunik gabeko ekimena baita.



Saiatz taldeko kide batzuk Irisasi BTT 'Hotzak akabatzen' proban. SAIATZ TKT

ZORION AGURRAK



Unax
Zorionak pototo, hiru urte betetzera zoaz. Jarraitu gu denok alaitzen zure irrifar eta jolasteko gogoekin. Asko asko maite zaitugu. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

OHARRAK

Santa eskeko entsegua

Zabaleta Auzolan elkarteak usadioari jarraikiz, Santa Eskean aterako da auzoan eta baserrietan zehar. Ostean afaria egingo dute auzoko lokalean. Ahotsak prest izateko entsegua egingo du taldeak astelehenean, otsailaren 3an, 19:00etan auzoko lokalean.

Martxoaren 8rako kartel lehiaketa

Udaleko Gizarte Zerbitzuak martxoaren 8rako kartel lehiaketako oinarriak jakitera eman ditu. Lehiaketa 12 eta 17 urte arteko gazteei zuzendua dago. Nahia adina proposamen aurkeztu ahaliko dira, betiere jatorrizkoak badira eta beste lehiaketaren batean saritua ez bada izan. Kartelaren edo bere irudien jabetza intelektuala ere egilearena izan behar du. Lanak "Martxoak 8 de Marzo, Emakumeen Nazioarteko eguna, Día Internacional de las Mujeres" goiburua izan behar du eta 50x70 zm-ko tamaina.

Formatu digitalean, zein fisikoan aurkeztu ahaliko dira proposamenak otsailaren 1etik 24ra.

Formatu digitaleko artxiboak jpg eta 300 ppko bereizmena izan behar du. emakumezentroa@lasarte-oria.eus helbidera bidali behar da. Artxiboaren izena lanaren izentzat hartuko da. Egilearen datu pertsonalak eta harremanetako datuak dituen mezu bat ere bidali behar da.

Euskarri fisikoan aurkeztu nahi duenak Emakumeen Zentroa eraman behar du lana zentzoko irekiera orduetan. Kartelaren izena atzean egon behar du idatzia. Horrekin batera egilearen datu pertsonalak eta harremanetako datuak dituen gutun-azala ere atxiki behar da.

Proposamen guztiak Emakumeen zentroan egongo dira ikusgai otsailaren 24tik martxoaren 4ra. Kartel irabazle epaimahai batek erabakiko du eta herritarrek euren iritzia eman ahaliko dute 2. eta 3. sariak aukeratzeko. Irabazleak 120 euroko saria jasoko du, bigarren postua eskuratzen duen kartelak 90 euro eta hirugarrenak, aldiz, 60 euro.


Algarvera eta Kadizera bidai

Biyak Bat erretiratuen elkarteak bidai antolatu du Algarvera (Portugal) eta Cadizera maiatzaren 28tik ekainaren 5era. Bidaiak 700 bat euroko kostua du bazkideentzat eta bazkide ez direnek 775 euro ordaindu beharko dituzte gutxi gorabehera.


Bidaietan interesatuak dauden herritarrek Biyak Bat elkarte bulegotik pasa behar dute 10:00etatik 12:30era. Plaza erretserba egiteko 250 euro ordaindu behar dira.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 31




Larunbata, 01




Igandea, 02




Astelehena, 03




Asteartea, 04



Asteazkena, 05



Osteguna, 06



HILDAKOAK

Oliva Gestoso Prieta. Urtarrilaren 27an.
Manuel Del Olmo Ruiz. Urtarrilaren 26an.
Manoli Gabilondo Utaberria. Urtarrilaren 26an.
Jose Mellado Fabian. Urtarrilaren 26an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 31	DE MIGUEL	EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00
Larunbata, 01	DE ORUE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
Igandea, 02	DE ORUE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
Astelehena, 03	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
Asteartea, 04	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
Asteazkena, 05	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
Osteguna, 06	URBISTONDO	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:	LARRIALDIKO TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629	OSASUN ZENTROA: 943 007 960
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184	DYA: 943 464 622
KIROLEDGIA: 943 376 182	GURUTZE GORRIA: 943 363 953
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181	UDALTZAINAK: 943 362 442
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179	ERTZAINZA: 943 538 840
KIUB: 943 361 605	SOS DEIAK: 112
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621	
MUNTERI AEK: 607 625 233	

SUDOKUA

	3			7		9	1	8
9				1		3		
1	2	7	3	8	9			
2		9		3	4	7	5	
	4		7			8	9	3
7		3	9	5	1			
3			1			6	7	2
8	1			2	7			
	7	2	5		3		8	

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKAINITZA

Ume bat zaintzeko pertsona euskaldun bat behar dut. Astean bi egunetan, 16:45etik 19:15era. Harremanetarako zenbakia, 699 232 501.

ESKARIA

Edozein lan egiteko prest nago: adineko pertsonak zaindu, baserrietan lan egin, portalak garbitu, e.a. Berehala hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 604 341 893.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest.

Harremanetarako zenbakia, 606 661 048.

BESTELAKO

EMAN

Txakur txiki gazte bat, bi urtekoa, dohainik emango nuke. Txertoak jarrita ditu. Harremanetarako zenbakia, 687 355 095.

SALEROSKETAK

SALDU

Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosi. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 400 euro. 646 824 466.



NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Santa Eskea. Agata deunaren eguna ospatzeko, Landaberriko ikastetxeko haurrak, Erketz EDTko kideak, Zabaleta Auzolan elkarteko lagunak eta Xumela korua, Earra! bertso eskola eta herriko txistulari taldea oles egitera aterako dira herriko kale, auzo eta baserrietatik. Ezarriak gogoz abesteko sano dituztela erakutsiko dute guztiek kopla kantuan. Lasarte-Oria, asteartea, egun osoa.

OSTIRALA 31

LASARTE-ORIA Afari-tertua

Lasarte-Oriako preso ohi eta Sareko kideekin afari-tertua egingo da. Lasarte-Oriako Ernaik antolatutako jarduera. Izena ematea itxi da. Xirimiri elkarte, 20:30ean.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Zorione Mendez *Marrak* erakusketa ikusgai izango da otsailaren 11era arte. Aurpegi eta gorputzen grabatu eta marrazkiez osatuta dago erakusketa. Marrak dira nagusi irudietan. Siglo20, egun osoan zehar.

DONOSTIA Ikuskizuna

Mikel Bemejohentarrak, Mixel Santamarina eta Iñaki Maruri aktoreek *Inpro-Komeriyak* ikuskizuna eskainiko dute. XXIX. Poltsiko Antzerki Jaialdiko ekimena da. Doakoa da, edukiera bete arte. Cemento Rezola museoa, Añorga, 20:00etan.

DONOSTIA Bertsolaritza

Andoni Egañak *Neretik* saioa eskainiko du. Bere bizitzari lotutako gaiak ardatz hartuta, bertso-paperean emanaldia egingo du Egañak. Horretarako Jon Ostolaza trikitilariaren laguntza izango du. Doakoa da, edukiera bete arte. San Telmo museoa, 19:00etan.

ANDOAIN Erakusketa

Ibai Maritxalar errenteriarak *Txakurrak euripean* erakusketa irekiko du otsailaren 29ra arte. Munduan zehar aurkitutako koloreez betetako lanak ikusgai izango dira.

Bastero kulturgunea, asteazn zehar, 18:00etatik 20:00etara; larunbatetan, 10:30etik 13:30etara eta 18:00etatik 20:30era.

LARUNBATA 1

URNIETA Kantu jira

Kantazaun kantuzaleen taldeak egun osoko ekitaldia antolatu du otsaileko hitzordurako:

12:00etan, kantu jira, kalez kale.

14:30ean, bazkaria, Lekaio KulturEtxea.

Bazkalostean, Lurdes Iriondo eta Xabier Lete oroitzu kantuan arituko dira.

Urnieta, 12:00etatik aurrera.

DONOSTIA Jaia

Inauterien aurrekari gisa, Kalderero konpartsek Donostiako auzo ezberdinak alaituko dituzte haien doinuekin.

Donostia, 18:00etatik aurrera.

IGANDEA 2

DONOSTIA Jaia

Donostiako Inude eta artzainen konpartsa aterako da Parte Zaharreko

Ordutegia:

10:00etatik 12:00etara, Landaberri ikastolako HH3 eta LH2 maila arteko haurrek deunari ederki abestuko diete erdialdeko kaleetan, betiere eguraldi ona egingo balu.

15:00etatik aurrera, Landaberri ikastolako LH6 mailako haurrak Garaikoetxea eraikinetik atera eta kaleetatik barrena ibiliko dira kantuan.

18:00etan, Erketz EDTko kideak herrian zehar eta baserrik alituko dituzte haien ahotsekin. Erketzen lokalean hasiko dira.

18:00etan, Zabaleta Auzolan elkarteak auzoko kaleetan eta baserrietan egingo du oles, Antonio Blas plazan hasita.

18:30ean, Xumela korua, Earra bertso eskola eta herriko txistulariak kaleak eta tabernak girotuko dituzte. Jalgi tabernan hasiko dira.

kaleetatik barrena. Kresala dantza taldeak antolatutako jarduera da.

Donostia, 12:00etatik aurrera.

OSTEGUNA 6

ANDOAIN Solasaldia

Jatorri anitzeko biolentzien biktimek (ETA, BVE eta GALen kaltetuak) solasaldia egingo dute. Maria Jauregik (aita ETAK hil zion), Naiara Zamarreñok (aita ETAK hil), Eneko Etxeberriak (anaia BVEk desagerrarazi zion) eta Nagore Otegi (aita GALek hil zion) parte hartuko dute mahai inguruan. Enekoitz Esnaola BERRIA egunkariko kazetariak gidatuko du ekitaldia.

Martin Ugalde parkea, 19:00etan.

LARUNBATA 8

LASARTE-ORIA Antzerkia

Marie de Jongh antzerki taldeak *Ikimilikiliklik* antzerkia taularatuko du. Jokin Oregiren zuzendariaren eskutik, Maride de Jongh antzerki taldeko kideek hitza erabiliko dute lehenengoz istorio bat kontatzeko. Hitza bera beldurrari buruzko hausnarketa bat partekatze elementua izango da. Hautzaroan hain zuzen sorginen beldur zen neska/emakume baten nondik norakoak aurkeztuko dituzte. Sarrera, 3,80 euro.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Ventajas de viajar en tren
Ostirala: 22:00.

Spy cat
Igandea: 17:00.

Ventajas de viajar en tren
Igandea: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

Jugando con fuego
Larunbata: 17:00.
Igandea: 17:00.

1917
Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 19:30, 22:00.

USURBIL

URBIL

Underwater
Ostirala: 15:45,

18:10, 20:15, 22:50, 00:55.
Larunbata: 15:45, 18:10, 20:15, 22:50, 00:55.
Igandea: 15:45, 18:10, 20:15, 22:50.

Adú
Ostirala: 16:45, 19:30, 22:00, 00:30.
Larunbata: 16:45, 19:30, 22:00, 00:30.
Igandea: 16:45, 19:30, 22:00.

Judy
Ostirala: 19:10, 21:30.
Larunbata: 19:10, 21:30.
Igandea: 19:10, 21:30.

Las aventuras del Doctor Doittle
Ostirala: 15:50, 17:00, 18:00, 19:15.
Larunbata: 15:50, 17:00, 18:00, 19:15.

Igandea: 20:25, 17:00, 18:00, 19:15.

Aguas Oscuras
Ostirala: 16:30, 00:00.
Larunbata: 16:30, 00:00.
Igandea: 16:30,

Jojo Rabbit
Ostirala: 20:20, 22:20, 00:40.
Larunbata: 20:20, 22:20, 00:40.
Igandea: 20:20, 22:20.

Bad Boys for Life
Ostirala: 16:00, 18:35, 21:10, 23:45.
Larunbata: 16:00, 18:35, 21:10, 23:45.
Igandea: 16:00, 18:35, 21:10.

Malasaña 32
Ostirala: 15:55, 20:25, 22:40, 00:55.
Larunbata: 20:25, 22:40, 00:55.

Igandea: 20:25, 22:40.

1917
Ostirala: 16:15, 18:45, 21:20, 23:50.
Larunbata: 16:15, 18:45, 21:20, 23:50.
Igandea: 16:15, 18:45, 21:20.

Star Wars: Episodio IX - El Ascenso de Skywalker
Ostirala: 21:40.
Larunbata: 21:40.
Igandea: 21:40.

Jumanji: Siguiendo nivel
Ostirala: 17:50.
Larunbata: 17:50.
Igandea: 17:50.

Espías con disfraz
Larunbata: 15:55.
Igandea: 15:55.

Goya sariak 2020

Dolor y gloria
Ostirala: 00:35.
Larunbata: 00:35.



LABURPENA

Ventajas de viajar en tren

Zuzendaria: Aritz Moreno. **Gidoilaria:** Javier Gullón. **Musika:** Cristobal Tapia de Veer. **Argazkia:** Javier Agirre Erauso. **Herr:** Espainia (2019). **Antzeleak:** Luis Tosar, Pilar Castro, Ernesto Alterio, Quim Gutiérrez, Belén Cuesta, Macarena García, Javier Godino, Javier Botet, Gilbert Melki, Ramón Barea, Daniel Horvath, Paco Sagarzazu. **Iraupena:** 102 minutu.

Adimenaren zokoak eta bere arazoak

Ventajas de viajar en tren filma ikusteko bi aukera izango dira asteburuan Lasarte-Orian. Okendo Zinema taldeak antolatzen duen zine forum atalean, gainera, Aritz Moreno zuzendariarekin solasean egiteko aukera izango dute herritarrek.

Antonio Orejudo idazle madrildarraren *Ventajas de viajar en tren* liburua aukeratu du zuzendari donostiarrak bere lehen film luzea grabatzeko. Azaroan estreinatu zuten zinemetan, Sitgeseko zinema jaialdian lehiatu eta gero. Goya sarietarako hainbat hautagaitza jaso ditu lanak eta

Feroz sarietan komedia onenaren garaikurra eskuratu zuen.

Filma Madril, Paris eta Gipuzkoako hainbat herrietan grabatu zuten eta Lasarte-Orian izan zen horietako bat.

Helgak bere senarra psikiatriko batean sartu du. Etxerako bidean, trenean doala ezezagun bat esertzen da berarekin. Angel Sanagustin psikiatra dela dio gizonak eta gaixoen idatzien bitartez euren arazo mentalak aztertzen dituela. Bidaian zehar, Angelek besteak beste, zaborraren obsesionatua dagoen gaixo arriskutsu baten istorioa kontatuko dio Helgari.

ORIANTE BHI

Instituto bat, bi eraikin

1. eta 2. DBH

Landaberri eraikina

Pintore kalea, 2
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 89 94 94

info@oriarte.eus

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA:

Astelehenak, astearteak
eta ostegunak:
9:00-12:00 eta 14:00-16:00
Asteazkenak eta ostiralak:
9:00-14:00

3. eta 4. DBH

Larrekoetxe eraikina

Buenos Aires aldapa, 1
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 89 94 92

info@oriarte.eus

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA:

Astelehenak, astearteak
eta ostegunak:
9:00-14:00 eta 14:45-16:30
Asteazkenak eta ostiralak:
9:00-14:00

- 12-18 urte bitarteko hezkuntza-eskaintza D ereduan.
- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituen.
- Aniztasunaren trataera: Hezkuntza Berriaz Sendotzeko Programa (HBSP), Pedagogo Terapeutak (PT), Aniztasun Curricularreko taldeak (AC), Bidelaguna (eskolaz kanpoko laguntza), laguntzako irakasleak, Hezkuntza Indartzeko Proiektuko Irakaslea (HIPI) eta Orientatzaileak.
- Teknologia berrien erabilera. Baliabide digitalak eta ikasgela guztietan sareko konexioa.
- Atzerriko bigarren hizkuntza aukeran.
- Jangela zerbitzua.

